

2005eko laugarren hiruhilekoan %5,2 gutxitu zen heriotza kopurua

2005eko laugarren hiruhilekoan 4.486 pertsona hil ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta urte osoan 18.821 pertsona.

EUSTATEN datuen arabera, 2005eko laugarren hiruhilekoan 4.486 pertsona hil ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, 2004ko laugarren hiruhilekoan baino %5,2 gutxiago. Lurraldeka, Araban 549 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.499 eta Gipuzkoan 1.438.

2005. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 18.821 pertsonakoa izan zen; horietako 9.958 gizonak izan ziren eta 8.863 emakumeak. Aurreko urtearen aldean 720 pertsona gehiago hil ziren eta, beraz, %4 gehitu zen heriotza kopurua.

2005. urtean izan zen heriotza kopuruaren %30,1 (hau da 5.666 heriotza) zirkulazio-sistemako gaixotasunen ondoriozkoak izan ziren. Gero tumoreen ondoriozkoak zeuden, %28,4arekin (5.341 heriotza); eta hirugarren gaixotasun nagusia, alde handiarekin bada ere, arnas gaixotasunen ondoriozkoak izan ziren %11,4arekin (2.155 heriotza).

Sexuaren arabera, heriotzaren eragileak ezberdinak izan ziren. Gizonen artean, tumore baten ondorioz hildakoak arnas gaixotasunen baten ondorioz hildakoak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, ordea, heriotza gehien eragin zuten gaixotasunak kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren gaixotasunak tumoreak.

2005. urteko heriotzen artean urte bat bete ez zuten 49 ume hil ziren; 33 mutil eta 16 neska. Bestalde, 100 urte edo gehiagorekin hildako pertsona kopurua nabarmen gehitu dela ikus daiteke; 1990. urtean aipatu adineko 56 pertsona hil ziren eta 2005. urtean 143 (26 gizon eta 117 emakume).

2005. urteko behin-behineko datuak aintzat hartuta, heriotza kopurua baino 763 jaiotza gehiago izan zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko hazkunde begetatiboak, beraz, ikur positiboa izan zuen. Lurraldeka, Arabak eta Gipuzkoak saldo positiboak izan zituzten, 370 eta 786 hurrenez hurren. Bizkaian, aitzitik, heriotzak jaiotzak baino gehiago izan ziren (-393).

**1. Taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera.
Hiruhilekoen alderaketa**

	2005eko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2005eko 3.hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2004ko 4. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.486	100,0	3.874	100,0	4.730	100,0
Gizonezkoak	2.387	53,2	2.071	53,5	2.501	52,9
Emakumezkoak	2.099	46,8	1.803	46,5	2.229	47,1
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.486		3.874		4.730	
Tumoreak	1.326	29,6	1.288	33,2	1.430	30,2
Zirkulazio-aparatua	1.391	31,0	1.083	28,0	1.420	30,0
Arnas aparatua	410	9,1	320	8,3	461	9,7
Txegoste-sistema	235	5,2	191	4,9	259	5,5
Istripuak	156	3,5	180	4,6	162	3,4
Gainerako gaixotasunak	968	21,6	812	21,0	998	21,1
GIZONEZKOAK	2.387		2.071		2.501	
Tumoreak	851	35,7	810	39,1	902	36,1
Zirkulazio-aparatua	647	27,1	534	25,8	674	26,9
Arnas aparatua	243	10,2	189	9,1	253	10,1
Txegoste-sistema	111	4,7	115	5,6	136	5,4
Istripuak	111	4,7	128	6,2	103	4,1
Gainerako gaixotasunak	424	17,8	295	14,2	433	17,3
EMAKUMEZKOAK	2.099		1.803		2.229	
Tumoreak	475	22,6	478	26,5	528	23,7
Zirkulazio-aparatua	744	35,4	549	30,4	746	33,5
Arnas aparatua	167	8,0	131	7,3	208	9,3
Txegoste-sistema	124	5,9	76	4,2	123	5,5
Istripuak	45	2,1	52	2,9	59	2,6
Gainerako gaixotasunak	544	25,9	517	28,7	565	25,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es